

## GreenUps! sariak

Aclima Euskadiko ingurumen-industrien kluster elkarteak (Helbide fiskala: Uribitarte pasealekua 3, Bilbo (48001), Bizkaia, Espainia. IFKa: G48763858) GreenUps! sariak izeneko kanpaina bat antolatu du.

Deialdi honen helburua da trantsizio ekologikoaren eta klimatikoaren gaur egungo erronkei erantzuteko soluzioak, teknologiak eta zerbitzu berritzaileak dituzten startupak aintzatestea eta saritzea.

Startup finalistek beren proiektuak aurkezteko *pitch* bat egin ahal izango dute Aclimak 2025eko urtarrilaren 30erako eta 31rako antolatutako GREENTECH & GREENUPS ekitaldian.

### **Hauek hartu ahal izango dute parte:**

Oinarri teknologikoa, ikuspegi berritzailea, hazteko bokazioa, eskalagarritasuna eta nazioarteko ikuspegia dituzten startupak, baldin eta trantsizio ekologiko eta klimatikoaren erronkei aurre egiteko diseinatutako balio-proposamen edo negozio-ereduren bat badute. Besteak beste, gai hauekin lotutako soluzioak izan daitezke (baina ez dira aukera bakarra):

- o Neutraltasun klimatikoa:
  - Energia berriztagarriak
  - Energia-efizientzia
  - Karbono-atzipena
- o Egokitzapen klimatikoa:
  - Arrisku klimatikoen kontrola eta gestioa
- o Ekonomia zirkularra:
  - Birziklatzea
  - Bigarren mailako materialen balorizazioa
  - Bioekonomia
  - Hondakinen murrizketa
  - Negozio zirkularren eredu berriak
  - Ekodiseinua
- o Ingurumenaren kalitatea:
  - Uraren ziklo osoaren kudeaketa
  - Airearen kalitatea
  - Zarata
  - Lurren deskontaminazioa
  - Birnaturalizazioa eta biodibertsitatearen babesa

- o Iraunkortasunerako digitalizazioa:
  - Plataforma digitalak
  - Gauzen Internet
  - Adimen artifiziala

## Parte hartzeko arauak eta baldintzak

**Baldintza** hauek betetzen dituzten startupek hartu ahal izango dute parte deialdian:

- Ekintzaile-taldeak: Kideek adinez nagusiak izan behar dute, eta legezko gaitasuna izan behar dute betebeharrak hartzeko eta egintza juridikoak egiteko.
- Pertsona juridikoak: Parte hartzen duten startupek pertsona juridikoak izan behar dute, espainiarrak nahiz atzerritarrak, gaitasun osoa izan behar dute indarrean dagoen araudiaren arabera jarduteko, eta ez dute izan behar Sektore Publikoko Kontratuen 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan aurreikusitako kontratazio-debekurik.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea: Parte hartzen duten startupek egunean izan behar dituzte Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekiko eta Zerga Agentziarekiko ordainketak.
- Jabetza intelektual: Parte hartzen duten startupeetako kideek izan behar dute aurkeztutako proiektuen egile intelektualak, eta proiektu horiek argitaragabeak izan behar dute. Parte hartzen duten startupeak izango dira proiektuen jabetza intelektual, industrial edo komertzialarekin lotuta sor daitezkeen erreklamazioen erantzule, eta erreklamazio horiek eragin litzaketen kalteetatik kanpo utziko dute Aclima.
- Dokumentazioa: Antolatzaileak eskubidea du parte hartzen duten startupeei noiznahi eskatzeko baldintza horiek betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Baldintza horietakoren bat betetzen ez duten parte-hartzaileak lehiaketa honetatik kanpo geratuko dira. Parte-hartzaileek lehiaketan izena ematean emandako datuek egiazkoak izan behar dute. Datu faltsuak, okerrak edo osatu gabeak ematen dituzten parte-hartzaileek programan parte hartzeko aukera guztiak galduko dituzte.

Parte hartu ahal izateko, **Aclimak emandako formularioa** bete beharko dute startupek (**IV. Basque GreenTech & GreenUps ekitaldiaren webgunean dago esteka**), eta balio-proposamenaren ezaugarriak eta funtsezko alderdiak azaldu beharko dituzte.

**Hautagaitzak jasotzeko epea 2025eko urtarrilaren 8an hasiko da, 10:00etan, eta 2025eko urtarrilaren 27an amaituko da, 18:00etan.** Epe horren barruan bakarrik parte hartu ahal izango da.

## Irabazlea hautatzea

Batzorde tekniko batek baloratuko ditu jasotako hautagaitzak, hiru fasetan. Fase hauek izango dira:

- **1. fasea – Lehen hautaketa:** Formularioan jasotako informazioa aztertu eta proposamenen lehen ebaluazioa egin ondoren, lehen urratsean hautatutakoek aukera izango dute beren proposamena aurkezteko. IV. Basque GreenTech ekitaldian egingo dira aurkezpenak, urtarrilaren 30ean, arratsaldean, BAT Dorrean.

*Proiektuen informazioa osatzeko, elkarrizketa pertsonalak egin ahal izango dira, izena emateko formularioan aurkeztutako dokumentazioan agertzen ez diren xehetasunak eskuratzeko.*

- **2. fasea - 3 finalista.** Urtarrilaren 30eko saioan lehen hautagaiak ezagutu ondoren, hiru startup onenak aukeratuko dira, eta urtarrilaren 31ko finalean aurkeztuko dituzte beren proposamenak.
- **3. fasea - Startup irabazlea:** Hiru finalisten artean aukeratuko da **Red Eban Green Investment sariaren** irabazlea.

**“Red Eban Green Investment Saria”** izeneko aintzatespenak **1.000,00 €-ko balio ekonomikoa** izango du, eta, horretaz gain, egileek lan-saio bat egin ahal izango dute **EBAN GREEN INVESTMENT sareko inbertitzaileekin**, saritutako startuparen balio-proposamena xehetasunez aztertzeko.

*Saria 2025eko urtarrilaren 31n emango da, IV. Basque GreenTech & GreenUps! ekitaldian.*

## Proiektuak balioesteko irizpideak

Aclima Basque Environment Cluster erakundeko eta EBAN Green Investment sareko ordezkariak osatzen dute batzorde teknikoa —ingurumen-sektorean espezializatutako inbertitzaileen sare horren helburu nagusia da ingurumen-merkatuko enpresa-ekimen berriak identifikatzea eta haiei laguntzea, finantza-kapitala eta sektoreko ezagutza emanez—.

Hautaketaren lehen fasean, honako ebaluazio-irizpide hauen arabera ebaluatuko ditu proiektuak batzorde teknikoak:

### 1. NEGOZIO-EREDUAREN TRANTSIZIO EKOLOGIKOARI ETA KLIMATIKOARI LAGUNTZEA (30 puntu).

- ☐ Produktuaren edo zerbitzuaren ingurumen-inpaktu positiboa
- ☐ Negozio-ereduan ezarritako jasangarritasun-estrategiak

### 2. BERRIKUNTZA-MAILA (25 puntu):

- ☐ Gaur egun merkatuan dauden soluzioekiko berrikuntza- eta desberdintze-maila

### 3. TALDEA (25 puntu):

- ☐ Ezagutza teknikoa eta/edo industriari eta/edo proiektuaren eremuari buruzkoa, eta aurretiko esperientzia

### 4. ESKALAGARRITASUNA (20 puntu):

- ☐ Merkatu potentzialaren tamaina
- ☐ Negozio-eredua
- ☐ Merkaturatze-estrategia

### **Datu pertsonalen babesa**

ACLIMA-BASQUE ENVIRONMENT CLUSTER erakundeak zure datu pertsonalak tratatu, eta bere fitxategietan sartuko ditu. Tratamendu horren legitimazioa interesdunen baimena da, eta helburua GREENTECH & GRENNUPS! sariak antolatzea eta kudeatzea, bai eta harremanari eustea ere. Horretarako, ezinbestekoa da zuk baimena ematea. Baimenik eman ezean, ezingo da zerbitzua eman edo eragiketa gauzatu. Legez ezarritako denboran gordeko dira datuak. Zure datuak ez zaizkie beste erakundeei lagako zure baimenik gabe, legez aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Datuetara irispidea izateko, haiek aldatzeko, ezabatzeko, haien aurka egiteko, haien tratamendua mugatzeko eta haien eramangarritasunerako eskubideak gauzatzeko eska dezakezu. Horretarako, idatzi bat bidali behar duzu Uribitarte pasealekua 3, 3.a, 48001 Bilbo (Bizkaia) helbidera, edo mezu bat bidali [aclima@aclima.eus](mailto:aclima@aclima.eus) helbide elektronikora. Halaber, zure eskubideak betetzen ez badira, erreklamazioa aurkeztu ahal izango diozu Datuak Babesteko Espainiako Agentziari. Hemen daukazu zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio xeheagoa: [www.aclima.eus](http://www.aclima.eus).

### **Irudi-eskubideen eta/edo jabetza intelektualaren lagapenak**

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko (EB) 2016/679 Erregelamenduaren (aurrerantzean, DBEO) 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, informazio hau emango du Aclimak datu pertsonalen tratamenduari buruz:

Arduradunaren identifikazioa: Aclima EAEko Ingurumen Industrien Kluster Elkartea ([www.aclima.eus](http://www.aclima.eus))

Ekitaldian, argazkiak atera eta bideoak grabatu ahal izango dira, albisteak edo albumak argitaratzeko webgunean, YouTube eta Google plataformetan nahiz sare sozialetan (Twitter, LinkedIn).

Zure onarpenarekin, baimena ematen duzu zure datuak, irudia eta/edo ahotsa trata daitezen, izen-ematea kudeatzeko eta azaldutako beste helburu batzuetarako.

Jarduera honekin lotutako jakinarazpenak bidali ahal izango dizkizu Aclimak.

Horrelako jakinarazpenik jaso nahi ez baduzu edo datuetara irispidea izateko, haiek aldatzeko, ezabatzeko, haien aurka egiteko, haien tratamendua mugatzeko eta haien

eramangarritasunerako eskubideak baliatu nahi badituzu, idatzi bat bidali behar duzu Uribitarte pasealekua 3, 3.a, 48001 Bilbo (Bizkaia) helbidera, edo mezu bat bidali [aclima@aclima.eus](mailto:aclima@aclima.eus) helbide elektronikora. Halaber, zure eskubideak betetzen ez badira, erreklamazioa aurkeztu ahal izango diozu Datuak Babesteko Espainiako Agentziari. Hemen daukazu zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio xeheagoa: [www.aclima.eus](http://www.aclima.eus).

### **Lege-oinarriak onartzea**

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar legezko termino eta baldintza hauek onartzea. Parte-hartzaileek lege-oinarri guztiak edo batzuk onartzen ez badituzte, lehiaketatik kanpo geratuko dira, eta Aclimak ez ditu bete beharko parte-hartzailearekin hartutako betebeharrak.

Ezinbesteko kasuetan, Aclimak eskubidea du lehiaketa atzeratzeko edo luzatzeko, bai eta lege-baldintza hauek interpretatzeko ere.

Aclimak ez du inolako erantzukizunik izango baldin eta irabazleek/ordezkoek emandako datuetan akatsen bat badago eta akats horren ondorioz haiek identifikatu ezin badira.